

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

2023ko hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezin gaineko Zergak, ezaugarri berezienak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kobratzea

Honakoa jakinarazten dut: urriaren 1etik aurrera, eta urriaren 31era arte, ondorengo ordainarazpenen 2023 urteari dagozkion ordainagiriak borondatezko epealdian kobratuko dira:

Hiri- eta landa-izaerako Hondasun Higiezin gaineko Zerga.

Ezaugarri berezidun Ondasun Higiezin gaineko Zerga.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

1. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epealdia: 2023ko urriaren 1etik urriaren 31era.

Exekuzio-epea: 2023ko azaroaren 1etik aurrera, exekuzio-epea hasiko da, eta exekuzio-gai-nordainak sortuko dira, bai premiamendu murriztukoak bai premiamendu arruntekoak, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako epeetan.

2. Ordaintzeko lekua eta modua.

Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetan helbideratu dutenek ez dute inolako gestiorik egin beharrik izango, helbideratzearen kontua aldatu ez badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratu gabe dutenek, borondatezko epean bakarrik ordaindu ahal izango dute, Kutxabank, Caixabank entitateen bulegoetan edo Eusko Jaurlaritzaren MIPAGO pasabidearen bidez.

3. Gomendioak.

Banku-helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta helbide-aldaketak ere, hurrengo jakinarazpenetarako, Arratzua-Ubarrundiako Udalarari bidali beharko zaizkio eta 2024ko ekitaldian aplikatuko dira.

Hala zabaltzen dut, jende guztiak horren berri izan dezan.

Duranan, 2023ko abuztuaren 30ean

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE